

IDAZLEEI EGINDAKO GALDEREK IZAN DUTEN ERANTZU- NEN AZTERKETA LABURRA

Bergara, 1978 - IX - 5

Ugalde, Martin

Euskaltzaindiak azken hamar urte hauetan aurrera eramane duen *Batasuna*-ren ondorenaz *idazleak* duen eritzia da oso kontuan hartu behar denetako bat.

Gai hau da Soziologi eta Estadistikako batzordearen ize-nean niri dagokidana.

Ahal dudan zehatzen eta osoen egingo dut etorri diren erantzunen laburpen edo sintesia: alde batetik, eta batez ere, estadistikari dagokiona: zenbatek *hau* dioten, zenbatek *beste*, gaiez gai.

Hau baita gehien bat hemen, sail hontan, jakin nahi dena.

Baina bereala sortzen dira lan ximple hontan ere konplijidadeak eragindako zailtasun batzu: 1) zeintzuk dira idazle; 2) idazleen erantzunak dituen nabardurak (matizak) nola sailkatu eta nola zenbatu.

Honetxegatik, eta erantzunak ematen hasi aurretik, noan gure taldeko lan hau nola, zer erizpidekin, egina izan den esatera.

1. IDAZLEEN HAUTAPENA

Idazleen hautapena bi epetan egina izan da:

1. Joan Mari Torrealdayk eratu zuen lehenengo zerrenda, ahal izan zuen osokien izenak bilduaz. Hontarako, Joan San Martinen *Catálogo bibliográfico de los escritores euskéricos*, Joan Mari Torrealdayren *Euskal idazleak*, gaur liburue-

tan agertzen diren guziak jaso dira; gainera, Euskal Idazleen Elkarteko partaideak, eta *Jakin-en*, *Anaitasuna-n*, *Zeruko Argia-n*, *Goiz Argi-n*, *Herria-n* eta beste aldizkarietan idazten dutenak ere bai.

Eta bilketa hau egin eta gero, 363 idazlen zerrenda *batzordeko bakoitzari pasatu zaio*.

2. Batzordeak, eta batzordekide bakoitzak bere zerrenda aurrean duela, banan-bana izenak berrikusi ditu; eta kasu bakoitza eztabaidatu ondoren, falta zen baten bat erantsi, eta inoiz besterik idatzi ez duenen batzu kendu ondoren, bakoitzak berez zerrenda hori aztertu eta gero izen berriren bat proposatzeko beta eskeini zitzaion batzordeko bakoitzari.

Hala, azkenean 260 idazleren zerrenda geratu da.

Nor da *idazlea* guretzat?

Idazlea, guretzat, *hizkuntza idatzian ari dena* da, lan honen helbururako behintzat, nahiz liburugile edo kazetari, eta baita itzultzaile eta zuzentzaile bezala ari dena ere.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar *azken hamar urte* hoietako idaz-lana dela aztertu behar duguna, eta miatu ditugun aldizkari eta liburuak, 1968-79ko bitarte hontan agertu direnak izan dira.

Galdeketa, beraz, epe hontan lanean ari direnei zuzendu zaie.

Jaso, berriz, 196 erantzun jaso ditugu. Bilketa hau, oso ona da; kasu hoietan normala den baino haundiagoa. Honek adierazten duena da, jendea oso motibatua eta zirikatua dagoela.

2. GALDEKETA IDATZIA

Aukerako diren inkesta motetatik, galdeketa teknika erabili dugu, eta hau korreoz bidalia izan da.

Helburua: batasunaz idazleak duen eritzia eta izan duen jokabidea ezagutzea.

Baina, nola?

Bi galdera mota izan dira beharrezkoak:

1) Galdetuaren *bereizgarri jakingarriak*, batetik: izendeiturak, jatorria, idazlanak, adina; eta 2) *batasunaz dituen eritziak*, bestetik.

Galderak, berriz, hiru eratan egin ditugu:

1) *itxiak*, aurrez kodifikatuak; erraz emanik, ahalik eta erantzun gehien jasotzearren.

2) *erdi irekiak*, aukeratzeko zerrenda bat eskeiniaz; honela, idazleari itxietan baino aukera gehiago eskaintzen zaio, eta, bestalde, a) aukera guzien artean galtzeko arriskua gutxitzen den bezala, b) beste bere bat erasteko ere ba du tokia.

3) *irekiak*, eritzi guziak, eta xehetasun haundienaz, jasotzeko bidea; noski, honek sortzen ditu gero, kodifikatzeko garaiean, bere lanak.

Galdeketa hau, Joan Mari Torrealdaiyk prestatua izan da, eta batzordekoak, berea bezala onartua. Zuzenketa, bidalketa eta kodifikapena, SIADECOK egina.

Eta antolaketa guzi hau eta ondorengo lanak egin eta gero, hara hemen adierazgarrienak direla uste ditugun ondorio batzu.

1

GALDEREN LEHENENGO ZATIA: zenbat, nongoak, zer adinekoak, zer kultura mailakoak, zein lanbidekoak, eta zeintzuk, egindako lanak

IDAZLEA, NONGOA

Hontaz, idazlearen bi xehetasun jaso ditugu: *jatorriari* eta *bizilekuari* dagozkionak.

Batetik bestera alde haundirik ez dagoenez, erantzun dutenen *bizilekua* hartuko dugu orain kontuan:

	Araban	5	%	2,6
	Gipuzkoan	123	%	62,6
1	Nafarroan	6	%	3,1
	Bizkaian	39	%	19,9
	Ipar Euskal Herrian	18	%	9,2
	Atzerrian	5	%	2,6
		196		100,—

IDAZLEEN JAIOTURTEA

	1899 arte	14 idazle	% 4,14
	1900-1910	13 idazle	% 6,63
	1911-1920	30 idazle	% 15,30
2	1921-1930	32 idazle	% 16,32
	1931-1940	43 idazle	% 21,93
	1941-1950	55 idazle	% 28,09
	1951-1970	9 idazle	% 4,59

Hemen jakingarriena da 28-37 urtekoak osatzen duten taldea dela haundiena: 55, ia hirutatik bat (% 28); gero, 38-47 urtekoak: 43 (% 22); eta bien artean, 28-47 urte bitartekoak, juxtu erdia dira: % 50.

Hoiei, hurrengo bi hamarrekoak erasten badizkiegu, 48-67 urte bitartekoak (% 31,6): % 81,6-ra iristen gara.

Eta hemendik kanpora geratzen direnak:

Nagusiagoak 68-79 eta gehiagokoak:	27	% 13,40
Gazteenak ...27-tik beherakoak:	9	% 4,59

Hainbat ondorio atera genezake datu horietatik, *belau-naldiei* buruz, *eraginei* dagokionez, eta beste.

EMAKUMEZKO IDAZLEA

Jakingarria da idazleen artean emakumeek duten lekua.

Zoritxarrez, txikia.

Emakumezkoak 9 bakarrik dira (% 3,5). Horien adinak: 25, 26, 27, 30, 31, 45 (bi) eta 90 (bi). Nongoak diren jakin nahi badugu, berriz: bat ez beste guztiak (eta hau Laburdin bizi da) gipuzkoarrak dira.

IDAZLEEN IKASKETAK

Adierazgarria da idazleak duen ikasketa maila.

Hemendik aurrekoak, eta laburpen bila, esangura haundiena duen ehunetik zenbatekoa bakarrik aipatuko dugu.

	Batxiler nagusia - COU	% 4,6
	Titulu tipiak	% 2,0
	Ikasketa apalak	% 7,1
3	Eliz ikasketak	% 20,9
	Ikasketa nagusiak	% 36,7
	Ikasketa nagusiak eta Eliz-ikasketak, biak	% 16,3
	Autodidaktak	% 7,1

Honek zerbait adierazten digu nagusiki:

Ikasketa nagusiak egiten dituztenak % 36,7, hirutatik bat baino gehiago direla. Horiei Eliz-ikasketaz gainera ikasketa nagusiak egin dituztenak erasten badizkiegu (% 16,3), % 55-ra heltzen garela, erdia ondo pasatxoa.

Euskal idazlearen kualifikazio honek ba du, gure ustez, euskararen etorkizunarentzat garrantzia.

Bestalde, titulazioa gazteengan, ugariago.

Eta ez gara hontan geratuko: Batxiler nagusia -COU (% 4,6) eta Eliz-ikasketa (% 20,9) egin dituztenak ere oso kontuan hartzekoak direnez, beste laurdena baino gehiago (% 25,5) osatzen dute; hala, azken porzentai honi aurrekoa erasten badiogu, osora % 80 baino gehiago dira ikasketa kualifikatuak egin dituzten idazleak.

Ba da zerbait.

IDAZTEN NOIZ HASI ZEN

Ba dirudi idazlea bere lana agertzen hasi zenaren datu honek esan-nahirik ba duela.

Proiektapen askotarako.

	15 urte aurretik	% 7,1
	16-20 bitartean	% 30,7
	21-25 bitartean	% 27,6
4	26-30 bitartean	% 10,7
	31-35 bitartean	% 7,1
	36-40	% 4,6
	40 urtetik gora	% 12,2

Kontuan izan behar duguna da, oraintsu arte ez dugula euskara irakasteko instituzio biderik izan: Ikastola eta Euskal Alfabetatzea, fenomeno berriak direla.

Hoiek izango dute eragina, eta haundia, aurrerakoan.

Gaurkoz, 16-20 urte bitartean idazten hasiak dira gehien: % 30,6, eta hoiei beste bostekoa erasten badiegu, 16-25 urte bitartekoak erdiak baino gehiago dira: % 58,2. Nolabaiteko eragin nagusi bat izan dute gazte hoiek hain debekatu, arriskutsu eta pobrea zen bide hau aukeratzeko.

Zaletasun hontara eragin dietenei zor dizkiegu eskerrak.

Idazle hoiek ez dira, gainera, *gaztetan idazten hasiak* bakarrik, baita *gazteak* ere. Hain zuzen, gaurko idazleen % 55,6 da 1951tik 1970ra idazten hasiak.

Idazlea nongoa den, zein adinekoa den, zein ikasketa dituen eta noiz idazten hasi zen jakin eta gero, goazen *batasunaz duen eritzia eta idazten izan duen jokabidearen berri jakitera*.

2

GALDEREN BIGARREN ZATIA: Zein euskalkitan idazten duen, euskara batuari egin dion ukoaren eta aldekdaren errazoiak, batasunaz Euskaltzaindiaren bidez dituen eritzia, eta Euskaltzaindiari egiten dizkion kritikak eta eskabideak.

ZEIN EUSKALKITAN IDAZTEN DUEN

Goazen orain, 196 idazle hoiek zein euskalkitan idazten duten ikustera.

	Bizkaieraz	% 8,7
	Gipuzkeraz	% 16,8
	Lapurteraz	% 1,5
	Behe Nafarreraz	% —
5	Goi Nafarreraz	% —
	Zuberoeraz	% 1,5
	Besterik	% 1,5
	Erantzunik ez	% 8,7
	Euskara batuaz	% 61,3

Ikusten denez, euskalkietan idazten dutenak % 30,0 dira, eta euskara batuan idazten dutenak, berriz, % 61,3.

Hemen, ondore batzu atera genitzake:

1. Euskara batuak bidea egin duela.

2. Hala ere, oraindik ia 3-tik 1-ek berea duen euskalkia-ri eusten diola; nahi duelako, edo batua ikasteko aukerarik izan ez duelako.

3. Hona euskalkietako lau joerak: *bizkaieraz* % 8,7; *gipuzkeraz* % 16,8; *lapurteraz* eta *zuberoeraz*, bakoitzetik % 1,5.

4. Gipuzkoako alderdi batzutan bizkaieraz hitzegiten denez, emandako zifra hoiek ez dute Bizkaiko edo Gipuzkoako joeraren esannahirik agertzen.

Bizilekuz eta idazbidez parekatu nahi dituenarentzat, hona hemen zifrak:

Gipuzkoarrak: % 62,8

Bizkaitarrak: % 19,9

Gipuzkeraz idazten: % 16,8 (denak Gipuzkoan)

Bizkaieraz idazten: % 8,7 (batzu Gipuzkoan)

EUSKARA BATUARI UKO EGIN DIOTENEN ARRAZOIAK

Gai hontaz jaso dugunaren berri emateko, gutxienez bi erizpide eduki behar dira kontutan: 1. Aukerako jartzen diren *9 formula*. 2. Bederatzi formula hoién *ordena*.

1. Hala, hara hemen eman diren 9 aukerak:

Herriarentzako idatzi behar

Euskalkiak indartu

Aberastasuna galdu

Kaltegarri da

Zaildu egiten da

Artifiziala da

Ideologiaren aitzakia

Inposaketa

Besterik

Erantzunik ez

2. Lehenengo aukerakoari, "1"; garrantziaz bigarren iruditzen zitzaionari "2", eta abar, jarraitu behar zen, 9ra heldu arte, garrantziaz azkeneko aukera.

Hara laburki, kuadru honek ematen dizkigun erantzun adierazgarrienak:

— *Lehenengo erantzun bezala* puntu gehien jasotzen dituen hau da: "Herriarentzako idatzi behar" (37); "Kaltregarri da" (4); "Zail du egiten da" (4); "Artifiziala da" (3); "Ideologiaren aitzakia" (2).

Bigarren erantzun bezala, "Euskalkiak indartu" (14); "Aberastasuna galdu" (8).

— Bestalde, aukera bakoitzak orden-leku batean edo bestean bereizia izan denaren maiztasuna:

1. "Herriarentzako idatzi behar" (53 aldiz)
2. "Zaildu egiten du" (51)
3. "Kaltregarri da" (46)
4. "Artifiziala da" (45)
5. "Aberastasuna galdu" (42)
"Euskalkiak indartu" (42)
6. "Inposaketa" (gainezartzea) (40)
7. "Ideologiaren aitzakia" (35)
9. Beste batzu.

Hemen, jakingarria da erantzun ez dutenak izan dira gehienak: *euskara batua*-ren ados direlako. Hara hemen ezaugarri bat:

1. erantzun, zenbat aldiz: 535.
2. ez erantzun, zenbat aldiz: 1.129.

Hara, hurrengo, *euskara batuari* baiezkoka eman dioten berri.

EUSKARA BATUARI "BAI" ESAN DIOTENEN ARRAZOIAK

Hemen ere erakus-bide berdina erabiliko dugu.

Hara, batetik, eman diren 9 aukerak:

Hizkuntza bakar bat behar

Elkar ulertzeko

Kultura handien antzera

Euskara indartzeko

Normalizatzeko
 Kultur tresna
 Euskaltzaindiagatik
 Euskara promozionatzeko
 Besterik
 Erantzunik ez.

— *Lehenengo erantzun bezala* puntu gehien jasotzen dituen hau da: "Hizkuntza bakar bat behar" (43); "Normalizatzeko" (28); "Kultur tresna" (12); "Euskara indartzeko" (10); "Euskara promozionatzeko" (9); "Elkar ulertzeko" (6); "Euskaltzaindiagatik" (5); "Kultura handien antzera" (3).

— *Bigarren erantzun bezala*: "Kultur tresna" (30); "Elkar ulertzeko" (29); "Normalizatzeko" (16); "Euskara indartzeko" (15); "Euskara promozionatzeko" (12); "Elkar ulertze-ko" (11).

— Bestalde, aukera bakoitzak orden-leku batean edo bestean izan dituen aipamenak sumatzen baditugu, hara hemen sailketa:

1. "Euskara normalizatzeko" (125 aldiz).
2. "Kultur tresna" (123).
3. "Euskara promozionatzeko" (120).
4. "Hizkuntza bakar bat behar" (116).
5. "Elkar ulertzeko" (115).
6. "Kultura handien antzera (111)
7. "Euskaltzaindiagatik" (110).
9. Beste batzu.

Hemen jakingarri diren hiru puntu aipatuko ditugu:

1. Erantzun ez dutenak gutxi direla: *euskara batuari* uko egin diotenak.

2. Euskaltzaindiak, berez, ez duela lehenengotasunik; eta egitazko garrantzia duten arrazoiak, objetiboak direla: *Hizkuntza bakar bat behar dugulako* eta *"Euskara normalizatzeko"*.

Baita *"Kultur tresna"* bezala behar dugulako ere.

3. Aurrekoan egin dugun bezala, hemen ere:

— erantzun, zenbat aldiz 1.056

— ez erantzun, zenbat aldiz 587

EUSKARA BATUAN IDAZTEN NOIZ HASTEN DEN

Hara hemen urtez-urte, hamar urte horietan, euskara batuan idazten *hasten direnak*; ez dugu hemen, orain arte bezala, porzentaia bakarrik emango; kasu hontan jakingarria da idazleak ere zenbat diren aitatzea, eta, hala, bi datuak emango ditugu:

	1967	3	% 2,97
	1968	33	% 32,68
	1969	13	% 12,87
	1970	16	% 15,84
	1971	8	% 7,92
6	1972	6	% 5,94
	1973	6	% 5,94
	1974	5	% 4,95
	1975	3	% 2,97
	1976	4	% 3,96
	1977	4	% 3,96

Ikusten denez, ba dira gutxi batzu (3) Arantzazu aurretik euskara batuan lehen urratsak egiten hasi zirenak. Hala ere, gehienak (33) urte berean hasten dira; idazleak arau baten beharrean zeuden, noski, eta Euskaltzaindiak emanak onartu zituzten. Hurrengo bi urteak ere aberatsak dira: 1969an 13 (% 12,87), eta 1970an 16 (% 15,84).

Geroztik, urtero lau-bost bat etorri dira batasun alorrera.

BATASUNAZ ERITZIA

Hara, orain arte emandako erizpideak kontrastatzeko beste galderabide bat:

Batasunaz duzun eritzia

	Oso ondo	89 idazle	% 45,4
	Ondo	42 idazle	% 21,4
	Gaizki	11 idazle	% 5,6
7	Ez dut eritzirik	2 idazle	% 1,0
	Besterik	5 idazle	% 2,6
	Erantzunik ez	42 idazle	% 21,4
	00	5 idazle	% 2,6

Hemen ere agertzen dira erantzunik ez duten 42 idazle; gutiengo edo minoria adierazgarria. Batez ere, eritzirik ez dutela aitortzen duten beste 5 erasten badizkiegu, denetara 47.

Gero, garbi *alde* edo *aurka*:

1. "Ondo" eta "Oso ondo" 131 idazle % 66,8
2. "Gaizki" 11 idazle % 5,6

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ ERITZIA

Batasun bide hau Euskaltzaindiaren bitartez egin denez, eta askotan eztabaidatua Euskaltzaindia bera izan delako, egin ditugu gai hontaz ere galderak, eta hona hemen erantzunak:

	Oso ondo	45 idazle	% 23,0
	Ondo	89 idazle	% 45,5
	Gaizki	24 idazle	% 12,2
8	Ez dut eritzirik	4 idazle	% 2,0
	Besterik	4 idazle	% 2,0
	Erantzunik ez	29 idazle	% 14,8
	00	1 idazle	% 0,5

Kuadru hontan ere ba dira 29 idazle erantzun ez dutenak; joan den kuadruan baino gutxiago, baina oraindik adierazgarri. Horiei: eritzirik ez duten 4, eta "besterik" esaten duen lerroan agertzen diren beste 4 erasten badizkiegu, hona hemen 37.

Aurreko kuadruan baino 10 gutxiago, baina hor daude zerbaiten zain. Bestalde, *zeharo batera* edo *bestera* erabaki dutenak:

1. "Ondo" eta "oso ondo" 134 idazle % 68,4
2. "Gaizki" 24 idazle % 12,2

Hemen argi ageri da: *Batetik*. Euskaltzaindiak izan duen jokabidearen alde askoz ere gehiago agertzen direla, aurka baino; nolana, "Oso ondo" dagoelatik "Ondo" dagoelara, tarte haundi xamarra dago: % 22, eta honek zerbait esan nahiko du. *Bestetik*, oraindik ba dela garrantzia duen talde bat kezketan.

Horien ahotsa oso entzungarri dela uste dugu Batzar hontan.

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ KRITIKA

Behar bada, hemen agertu behar luke Euskaltzaindiaren jokabideaz duten eritzia.

Hona kuadrua:

Prozedura edo erabidearen kritika	27 idazle	% 13,8
Lexikoari buruz	18 idazle	% 9,2
Aditzari buruz	12 idazle	% 6,1
Ortografiari buruz	8 idazle	% 4,1
9 Besterik	30 idazle	% 15,6
Ezer ez	35 idazle	% 17,3
1 + 2 + 3 + 4	4 idazle	% 2,0
Dena kritikatu dutenak.....	21 idazle	% 10,7
00	1 idazle	% 0,5
Erantzunik ez	40 idazle	% 20,7

Kuadru hau oso argigarri dela iruditzen zaigu.

Batetik, ikusi dugu Euskaltzaindiaren lana gehientasun batez onartua izan dela, zalantzarik gabe.

Baina, normala den bezala, egin duen guztia ez du ongi egin; eta osorik hartuta ongi derizkiotenen artean atalka aztertzerakoan ohar batzu egitea oso normala da, eta baita beharrezkoa ere:

Hara hemen adierazgarri direla uste dugun puntu batzu:

1. Euskaltzaindiaren bideaz
kritikarik ez dutenak 35 idazle % 17,3
2. "Besterik" dion atalean,
erreserba bat ageri da 30 idazle % 15,3
3. Bestalde, gehiegi dira
erantzunik ez dutenak 40 idazle % 20,4
4. Dena kritikatu
dutenak ere, asko..... 21 idazle % 10,7

Kuadru hau da, behar bada, batzar nagusi honen lane-rako adierazgarriena dena.

Batasuna ontzat hartua da, Euskaltzaindiak orokorki egin duen bidea ere bai. Orain, bide hau *nola egin* denaren hontan, ba da zer begira, zer azter, zer konpon.

Lan luze eta zaila denez, beharko dugu eten gabeko lanean jarrai.

Hau, honela dela, zeintzu dira Euskaltzaindiari egiten zaizkion eskabideak?

EUSKALTZAINDIARI ESKABIDEAK

Hara hemen Euskaltzaindiari egiten zaizkion eskabideak osatzen duen kuadrua:

1968an hartutako bidea baino			
	lehenagora itzultzea	9 idazle	% 4,6
	Erabakiak berrikustea.....	14 idazle	% 7,1
	Falta denaosatzea.....	82 idazle	% 41,8
10	Besterik	14 idazle	% 7,1
	1 + 2	33 idazle	% 16,8
	1 + 2 + 3	8 idazle	% 4,1
	Erantzunik ez	31 idazle	% 15,8
	Bariabteak: 0,5 + 0,5 + 1,7.....	5 idazle	% 2,7

Hemen ere ba ditugu esangura handia duten puntu batzu:

1. 1968ra itzuli nahi luketenak
oso gutxi dira 9 idazle % 4,6
2. Falta denaosatzea nahi
dutenak, asko 82 idazle % 41,8
3. Hemen dago, beti, erantzuten ez duen taldetxo hau 31 idazle % 15,8

Hoik denak ere hartu beharko dira kontuan azken hamar urte hoietan egin denaren azterketa egiterakoan.

GALDERA IREKIEN ERANTZUN UGARIA

Lehen esan dugun bezala, gaurko teknikabideak agintzen dizkigun galdera *hitxi* eta *erdi-ireki*-az gainera, egin dugu zabal eta osorik *irekia* den bat ere.

Hara hartu ditugun erantzunen laburpen adierazgarriena:

Zer eskatuko zenioke Euskaltzaindiaren Bergara-ko VIII Biltzarrari?
(Erantzun bat bakarra ematen dutenen artean)

	1. 10 urteko ebaluapena	1 idazle	% 0,51
	2. Gramatika finkatu	14 idazle	% 7,14
	3. Euskara biziari begiratu....	9 idazle	% 4,59
	4. Euskalkiak zaindu	4 idazle	% 2,04
	5. <i>Erabakiak</i> , bai	21 idazle	% 10,7
	6. <i>Erabakirik</i> , ez	4 idazle	% 2,4
11	7. Erabideari jaramon gehiago	20 idazle	% 10,2
	8. Amore eman behar Euskaltzaindiak	12 idazle	% 6,12
	9. Institutuzio bezala Euskaltzaindia	2 idazle	% 4,08
	10. Euskara ofizialdu	8 idazle	% 4,08
	11. Besterik	13 idazle	% 6,63

Gero, arazo bat edo beste lotuaz konbinaketa asko; hoiek ez dira hitz gutxitan adierazten errazak; nola nahi, denetara 35 konbinaketa ezberdin izan arren, 64 idazle dira honelako bat edo bi egiten dituztenak, eta denak orain arte esandakoen konbinaketak direnez, eta hoiek denak aztertzekeo denbora asko beharko litzatekeenez, ez gara xehetasun horietan sartuko.

Baina kuadrua ez da oraindik bukatu.

Hara hemen falta diren hiru erantzun mota:

95. Euskaltzaindiarekin		
ados ez	2 idazle	% 1,02
97. Inkesta hau partziala da ...	3 idazle	% 1,53
99. Zehaztugabea da	19 idazle	% 9,69

Hara hemen kuadruaren esangura nabarmenena.

Norbaitek erantzun-horria ikusi edo guk irakurtzea nahi balu, hemen ditugu jasotako guztiak.

Gure aldetik, hara kuadru honek adierazgarri bezala erakusten diguna:

1. Euskaltzaindiak <i>erabakiak hartzea</i> :	
<i>nahi</i> dutenak	21
<i>nahi ez</i> dutenak	4
2. Euskalkiei dagokienez:	
Euskara biziari begiratu behar	9 idazle
Euskalkiak zaindu	4 idazle

- | | |
|--|-----------|
| 3. Erabideari, prozedurari, jaramon | |
| gehiago egin behar | 2 idazle |
| 4. Euskaltzaindia: a) Institutio bezala, bai | 2 idazle |
| b) Ados ez | 2 idazle |
| 5. Inkesta, bere auzitan: Partziala da | 3 idazle |
| Zehaztu gabea .. | 19 idazle |

Hau da, niri dagokidan gaiaz, eta izan dudana betan, IDAZLEEK EMANDAKO ERANTZUNEI buruz egin ahal izan dudana laburpena.

Hainbeste gauza esateko dugun Batzar hontan ezin dut besterik egin.

Hala ere, minutu batzu izango ditugu oraindik elkarriketa labur baterako.

Nik edo gure batzordeko beste norbaitek zerbait argitu ahal ba dugu, esan; saiatuko gara erantzuten.

Eskerrik asko.

IDAZLEEI EGINDAKO GALDEREK IZAN DUTEN ERANTZU- NEN AZTERKETA LABURRA

Hara hemen txosten honi jarraitzeko eskuan behar dituzun kuadruak.

Baina kuadru hoiek, 11, eta bakoitza bere zenbakiarekin bereizia, behar dute sarreratxo bat.

Lan hau nola eta zertarako egin dugun adierazteko.

Euskaltzaindiak azken hamar urte hauetan aurrera eramane duen *Batasuna*-ren ondorenaz *idazleak* duen eritzia da oso kontuan hartu behar denetako bat.

Baina, nor da *idazle*?

IDAZLEEN HAUTAPENA

Idazleen hautapena bi epetan egingo izan da:

1. Joan Mari Torrealdai-k eratu zuen lehenengo zerrenda, ahal izan duen osokien izenak bilduaz. Hontarako, Joan San Martin-en *Catálogo bibliográfico de los escritores euskéricos*, Joan Mari Torrealdai-ren *Euskal idazleak*, gaur liburutetan agertzen diren guztiak jaso dira; gainera, Euskal Idazleen Elkarteko partaideak, eta *Jakin*-en, *Anaitasuna*-n, *Zeruko Argia*-n, *Goiz Argi*-n eta beste aldizkarietan idatzi dutenak ere bai.

Eta bilketa oso hau egin eta gero, 363 idazlen zerrenda *batzordeko bakoitzari pasatu zaio*.

Denen aurrean banan bana, eta gero bakoitzak berez, aztertu ondoren, inoiz besterik idatzi ez duenen batzu kendu ziren; eta, hala, azkenean 260 idazleren zerrenda geratu da.

Nor da *idazle* guretzat eta lan hontarako?

Idazlea, guretzat, *hizkuntza idatzian ari dena* da, lan honen helbururako behintzat, nahiz liburugile edo kazetari, eta baita itzultzaile eta zuzentzaile bezala ari dena ere.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar *azken hamar urte* hoietako idaz-lana dela aztertu behar duguna, eta miatu ditugun aldizkari eta liburuak, 1968-78ko bitarte hontan agertu direnak izan dira.

Galdeketa, beraz, epe hontan lanean ari direnei zuzendu zaie.

Jaso, berriz, 196 erantzun jaso ditugu.

Bilketa hau oso ona da; kasu hoietan normala den baino handiagoa.

GALDERAK

Bi galdera mota izan dira beharrezkoak:

1. Galdetuaren *bereizgarri jakingarriak*, batetik: izen deiturak, jatorria, idazlanak, adina. 2. *Batasunaz dituen eriziazik*, bestetik.

KUADRUAK

Hara hemen, beraz, aitatutako 11 kuadru.

Txostena irakurtzerakoan eskuan edukitzea kontseilagarri dena.

IDAZLEA, NONGOA (BIZILEKUA)

1	Araban	5	% 2,6
	Gipuzkoan	123	% 62,6
	Nafarroan	6	% 3,1
	Bizkaian	39	% 19,9
	Ipar Euskal Herrian	18	% 9,2
	Atzerrian	5	% 2,6
		196	100

IDAZLEEN JAIOTURTEA

2	1899 arte	14 idazle	% 7,14
	1900-1910	13 idazle	% 6,63
	1911-1920	30 idazle	% 15,30
	1921-1930	32 idazle	% 16,32
	1931-1940	43 idazle	% 21,93
	1941-1950	55 idazle	% 28,09
	1951-1970	9 idazle	% 4,59

IDAZLEEN IKASKETAK

	Batziler nagusia - COU	% 4,6
	Titulu tipiak	% 2,0
	Ikasketa apalak	% 7,1
3	Eliz ikasketak	% 20,9
	Ikasketa nagusiak	% 36,7
	Ikasketa nagusiak eta Eliz-ikasketak, biak ..	% 16,3
	Autodidaktak	% 7,1

IDAZTEN NOIZ HASI ZEN

	15 urte aurretik	% 7,1
	16-20 bitartean	% 30,7
	21-25 bitartean	% 27,6
4	26-30 bitartean	% 10,7
	31-35 bitartean	% 7,1
	36-40 bitartean	% 4,6
	40 urtetik gora	% 12,2

ZEIN EUSKALKITAN IDAZTEN DUEN

	Bizkaieraz	% 8,7
	Gipuzkeraz	% 16,8
	Lapurteraz	% 1,5
	Behe Nafarreraz	% —
5	Goi Nafarreraz	% —
	Zuberoeraz	% 1,5
	Besterik	% 1,5
	Erantzunik ez	% 8,7
	Euskara batuaz	% 61,3

EUSKARA BATUAN IDAZTEN NOIZ HASTEN DEN

	1967	3	% 2,97
	1968	33	% 32,68
	1969	13	% 12,87
	1970	16	% 15,84
	1971	8	% 7,92
6	1972	6	% 5,94
	1973	6	% 5,94
	1974	5	% 4,95
	1975	3	% 2,97
	1976	4	% 3,96
	1977	4	% 3,96

BATASUNEZ DUEN IRITZIA

Batasunaz duzun eritzia

	Oso ondo	89 idazle	% 45,4
	Ondo	42 idazle	% 21,4
	Gaizki	11 idazle	% 5,6
7	Ez dut eritzirik	2 idazle	% 1,0
	Besterik	5 idazle	% 2,6
	Erantzunik ez	42 idazle	% 21,4
	00	5 idazle	% 2,6

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ ERITZIA

	Oso ondo	45 idazle	% 23,0
	Ondo	89 idazle	% 45,5
	Gaizki	24 idazle	% 12,2
8	Ez dut eritzirik	4 idazle	% 2,0
	Besterik	4 idazle	% 2,0
	Erantzunik ez	29 idazle	% 14,8
	00	idazle 1	% 0,5

EUSKALTZAINDIAREN BIDEAZ KRITIKA

Prozedura edo erabidearen			
	kritika.....	27 idazle	% 13,8
	Lexikoari buruz	18 idazle	% 9,2
	Aditzari buruz	12 idazle	% 6,1
	Ortografiari buruz	8 idazle	% 4,1
9	Besterik	30 idazle	% 15,6
	Ezer ez	35 idazle	% 17,3
	1 + 2 + 3 + 4	4 idazle	% 2,0
	Dena kritikatu dutenak.....	21 idazle	% 10,7
	00	idazle 1	% 0,5
	Erantzunik ez.....	40 idazle	% 20,7

EUSKALTZAINDIARI ESKABIDEAK

1968an hartutako bidea baino			
	lehenagora itzultzea	9 idazle	% 4,6
	Erabakiak berrikustea	14 idazle	% 7,1
	Falta dena osatzea.....	82 idazle	% 41,8
10	Besterik	14 idazle	% 7,1
	1 + 2	33 idazle	% 16,8
	1 + 2 + 3	8 idazle	% 4,1
	Erantzunik ez.....	31 idazle	% 15,8
	Variableak: 0,5 + 0,5 + 1,7	5 idazle	% 2,7

GALDERA IREKIEN ERANTZUN UGARIA

Zer eskatuko zenioke
Euskaltzaindiaren Bergara-ko
VIII Biltzarrari?
(Erantzun bat bakarra
ematen dutenen artean)

1.	10 urteko ebaluapena.....	idazle 1	% 0,51
2.	Gramatika finkatu	14 idazle	% 7,14
3.	Euskara biziari begiratu....	9 idazle	% 4,59

	4. Euskalkiak zaindu	4 idazle	% 2,04
	5. <i>Erabakiak</i> , bai	21 idazle	% 10,7
	6. <i>Erabakirik</i> , ez	4 idazle	% 2,4
11	7. Erabideari jaramon gehiago	20 idazle	% 10,2
	8. Amore eman behar Euskaltzaindiak	12 idazle	% 6,12
	9. Instituzio bezala Euskaltzaindia	2 idazle	% 1,02
	10. Euskara ofizialdu	8 idazle	% 4,08
	11. Besterik	13 idazle	% 6,63
			
			
			
			
	95. Euskaltzaindiarekin ados ez	2 idazle	% 1,02
	97. Inkesta hau partziala da ...	3 idazle	% 1,53
	99. Zehaztugabea da	19 idazle	% 9,69